


## ZENBAIT AHOLKU
## ALGUNOS CONSEJOS

- Txango bati ekin aurretik, har ezazu informazioa ibilbidearen zailtasunari eta eguraldiaren iragarpenari buruz. Parkeko etxeak eta langileak zure zerbitzura dituzu.
- Isilik paseatzea eta animalien ohiturak ezagutzea, prismatikoak badaramatzazu eta kolore biziko jantzirik ez baduzu, errazagoa izango zaizu animaliak behatzea.

- Antes de iniciar una excursión, infórmese de la dificultad de la ruta y de la previsión del tiempo. Las casas del parque y su personal están a su servicio.
- Pasear en silencio y conocer los hábitos de los animales, llevar prismáticos y prendas de colores no llamativos, facilitarán la observación de la fauna.

**Horretaz gain, kontuan izan Parkearen barruan debekatuta dagoela:**

Además, recuerda que en el interior del Parque está **prohibido:**

- **Sua piztea eta egurra ebakitzea** / Encender fuego y cortar leña.
- **Motordun ibilgailuekin ibiltzea, baimendutako esparruetatik kanpo** / Circular con vehículos motorizados, excepto en los espacios autorizados.
- **Edozein zabor bertan uztea edota lurperatzea** / Abandonar y/o enterrar cualquier tipo de basura.
- **Kanpatzea gaua pasatzeko bakarrik baimenduta dago** / No está permitida la acampada libre, salvo pernoctar.
- **Inguruneko elementuak aldaraztea edota bertatik kentzea** / Alterar, modificar y/o retirar elementos del medio natural.
- **Aske dabiltzan txakurrek aziendari eraso egin ahal diote, edota abereak uxatu. Kontrolatuta egon beharko dute, edota uhalez lotuta.** / Los perros sueltos pueden atacar al ganado o espantarlo. Deben estar controlados o sujetos con la correa.

**Gomendio gehiagorako www.bizkaia.net orrialdea bisitatu** / Para más recomendaciones visitar la página www.bizkaia.net

GORBEIAKO INTERESGUNE BATZUK

# 6 aukera interesgarri...

ALGUNOS RINCONES DE GORBEIA

# 6 opciones para no perderse...

## 1 Arrabako zelaiak / Campas de Arraba



*Familiartean egiteko, egun erdiko aukera.*
Belardi hauek, ia 1.100 metrotan kokatuta, artzaintza jarduerak luzaroan utzitako emaitza dira.
**Interesak:** Paisajistikoa. Atseden eta jolaserako ingurune aparta. Igoeran zehar, Gorbeiaganeko eta Arratia haraneko izugarrizko ikuspegiak.

*Alternativa adecuada para excursión familiar de medio día.*
Situadas a casi 1.100 m de altitud, son el resultado de la actividad intensiva del pastoreo en la zona.
**Intereses:** Paisajístico, zona ideal de recreo y esparcimiento, excepcionales vistas de Gorbeia y del Valle de Arratia durante la ascensión desde Pagomakurre.

## 2 Itxina (biotopo babestua) / Itxina (biotopo protegido)



*Ausartenentzat eta zerbait berezia nahi duen ororentzat.*
Itxinara heltzea, kulturaz, tradizioz eta historiaz betetako paisaia magiko batera sartzea da.
**Interesak:** Geologikoak eta bioaniztasun arlokoak, gizakiak ia eraldatu gabeko paisaia karstikoa baita.

*Para los más osados y para todo aquel que exija algo más.*
Acceder a Itxina es adentrarse en un paisaje mágico, cargado de historia, tradición y cultura.
**Intereses:** Geológico y de biodiversidad en general, al tratarse de un paisaje cárstico prácticamente inalterado por el ser humano.

## 3 Saldropo / Saldropo



*Familiartean egun osoko egonaldiaz gozatzeko aukera.*
Saldropo inguruneko elementurik aipagarriena bertako hezegunea da, baita ondoan dagoen atsedengunea ere, picnic-a egiteko, jolasteko eta atsedenerako leku egokia da. Bertan mahaiak, iturriak, barbakoak, aparkalekuak eta komunak daude.
**Interesak:** Landazabala eta bioaniztasun handia. Hezegunearen inguruan zailtasun gabeko ibilbide labur eta zirkularra egiteko aukera dago.

*Para poder disfrutar de un día familiar completo en plena naturaleza.*
El área natural del entorno de Saldropo, con un humedal como elemento principal y un área recreativa equipada con aparcamientos, fuente, barbacoas, mesas, basureras, wc, etc... es uno de los sitios ideales como lugar de picnic, juego y esparcimiento.
**Intereses:** Paisaje de campiña y gran biodiversidad, con la opción de realizar un itinerario circular sin ningún grado de dificultad entorno al humedal.

## 4 Gorbeiako gurutzea: Pagomakurreko atsedengunetik / Cruz de Gorbeia: desde el área recreativa de Pagomakurre



*Mendizale guztientzako aukera aproposak.*
1.481 metro dituen Gorbeiako tontorrera igotzea, Bizkaia eta Arabako punturik altuenera heltzea da, hori da mendizale askoren helburua.
**Interesak:** Paisaia eta kirola. Ibilbidearen perfila nahiko aldapatsua da, batez ere Gorbeiaganera heltzeko dagoen goi mendiko larreen tartea.

## 5 Gorbeiako gurutzea: Saldropoko hezegunetik / Cruz de Gorbeia: desde el Humedal de Saldropo

*Dos opciones ideales para todo excursionista con espíritu montañero.*
El ascender hasta los 1.481m de altitud de Gorbeia supone encontrarse en un punto estratégico y estar en el techo de Bizkaia y Araba, por lo cuál es la opción elegida por la mayoría de montañeros.
**Intereses:** Paisajístico, deportivo por resultar una opción bastante más exigente físicamente, sobre todo la ascensión del último tramo de praderas de alta montaña.



## 6 Urigoiti - Aldabide - Sintxita / Urigoiti - Aldabide - Sintxita



*Zentzumen guztiekin gozatzeko aukera paregabea.*
Orozkoko udalerrian, Axkorrigan tontorra gainean dugula, Itxinaren babespean egongo gara.
**Interesak:** Itxina barrura sartu barik, haren ikuspegi itzelaz gozatzeko aukera izango dugu. Sintxita eta Aldabideko urjauziek bizitasuna ematen diote ingurune honi, erakargarriago eginez.

*De las mejores alternativas para disfrutar con todos los sentidos.*
Dentro del municipio de Orozko en esta zona nos encontraremos al abrigo de Itxina dominados por la cumbre de Axkorrigan.
**Intereses:** Además de disfrutar de las mejores vistas del macizo de Itxina sin necesidad de acceder a su interior, los saltos de agua de Sintxita y Aldabide otorgan a esta zona un valor añadido de postal.

## GORBEIAko Parke Naturala

### Kokapena

Gorbeiako Parke Naturala 1994an izendatu zen. EAEko babestutako guneetatik handiena da, 20.016 Ha baititu Bizkaia eta Arabako lurraldeetan banatuta.

Gorbeiako gailurra inguruko gunerik esanguratsuena da. Bizkaia eta Arabako mendirik altuena da, 1.481 metro dituelako, eta bertan gurutze ezaguna dago.

### Ingurune naturala

Parkeko isurialde kantauriarra eta mediterranearra, bertako ur banaketarekin bat datoz. Bizkaiak mendiko klima hezea aurkezten du eta Araba klima eguzkitsu eta lehorragokoa da.

Kokapen honek, ekologia eta paisaia aldetik aniztasun izugarria dakar; aipatzekoak dira hostoerorkorreko basoak, mendiko larreak, harkaitzak, txilartegiak, hezeguneak, koniferoen landaketak, etab., hemen elkarbizi dira bertako landare eta animaliak.

Parkeko ugaztun ikusgarritzat hartu daitezke oreinak eta orkatzak, eta hauekin batera adierazgarriak dira azeriak, azkonarrak, basurdeak, saguzarrak, lepahoriak eta lepazuriak.

Egunez hegazti harrapakariak diren zapelatza, mirua eta sarraskijaleak diren sai arre eta sai zuria dabiltza; eta gauez hontza edo hontz zuria egoten dira harrapakinen zelatan.

Hauetaz gain, beste ugaztun, hegazti, narrasti, urlehortar eta ornogabeak ere ekosistemen oreka lortzeko ezinbestekoak dira.

Gorbeiako geologiari dagokionez, Arabako lurraldeak Bizkaikoak baino erliebe leunagoa duela esan dezakegu. Gailurra eta hego ingurua orain dela 95 milioi urteko hareharriz osatuta daude, eta Aldamin eta Itxina inguruan kareharria aurki dezakegu.

### Historia, kultura eta ohiturak

Gorbeiako gailurra Euskal Herriko geografia, kultura eta historiaren ikur bereizgarri bat da. Duen kokapen pribilegiatuak, mendeetan zehar deiadar mendi bilakatzea ekarri zuen, bertan Gernikako Batzar Nagusietara joateko deia egiten zen.

Bertako biztanleen bizimodua baliabide naturaletara oso lotuta egon da beti. Azpimarratzekoak dira artzaintza eta jada desagertuta dagoen ikazkintza.

Hainbat eta hainbat dira Gorbeiarekin lotuta dauden kondairak; hauek paisaiarekin, kobazuloen formekin, eguraldiarekin eta pertsonaia mitologikoekin (Basajaun, Mari "Anbotoko Dama", Tartalo, sorginak, lamiak,...) erlazionatuta daude.

Gorbeia betidanik izan da mendizaleen, zientzialarien, bertokoen eta naturarekiko errespetua duten guztien topalekua.







## Parque Natural de GORBEIA

### Situación

El Parque Natural de Gorbeia, declarado en 1994, con sus 20.016 Ha repartidas en los Territorios Históricos de Bizkaia y Araba, es el área natural protegida más extensa de la C.A.V.

La cima del macizo de Gorbeia es su punto más característico, lugar donde está situada la emblemática cruz y que con sus 1.481 m de altitud es el lugar más elevado de las provincias de Bizkaia y Araba.

### Medio natural

El medio físico está caracterizado por la diferencia entre las vertientes Norte y Sur del Parque que coinciden con la divisoria de aguas, dando lugar a la vertiente Cantábrica y Mediterránea respectivamente, siendo Bizkaia una zona con un clima húmedo típico de montaña, y la vertiente mediterránea con un clima más seco y soleado.

Esta situación estratégica del Parque, propicia la existencia de una gran diversidad ecológica y paisajística, destacando ecosistemas de bosques caducifolios, pastizales de alta montaña, roquedos, brezales, humedales, plantaciones de coníferas, etc., en los que conviven especies vegetales y animales típicos de cada zona.

Por su vistosidad los ciervos y corzos, aunque no resulta fácil verles, son junto con zorros, tejones, jabalíes, murciélagos, garduñas y martas algunos de los mamíferos que pueblan el Parque. Aves rapaces como milanos o ratoneros por el día y lechuzas o búhos por la noche acechan a sus presas, y carroñeros como el buitre leonado o el alimoche otean desde el aire, sin olvidar el resto de mamíferos, aves, reptiles, anfibios e innumerables invertebrados que resultan imprescindibles para el equilibrio de los ecosistemas.

Analizando la geología del macizo del Gorbeia, apreciamos que los terrenos alaveses son de morfología más suave que los de Bizkaia. La cumbre y su entorno sur se hallan formados por areniscas que datan de hace 95 millones de años, y encontramos las calizas en la zona de Aldamin e Itxina.

### Historia, tradición y cultura

La cima del Gorbeia es un punto de referencia de la Geografía, Cultura e Historia del País Vasco. Su privilegiada situación hizo que durante siglos se empleara como monte bocinero, el lugar donde se convocaba a las merindades para acudir a las JJ.GG. de Gernika.

El modo de vida de sus habitantes ha estado siempre muy ligado al uso y aprovechamiento de los recursos naturales, destacando actividades como el pastoreo o el ya extinguido oficio del carbonero.

Muchas son las leyendas que rodean al entorno de Gorbeia, relacionadas generalmente con fenómenos atmosféricos, el paisaje o la forma de las cuevas y con personajes como Basajaun, Mari "la Dama de Anboto", Tartalo o Brujas y Lamias.

El monte Gorbeia ha sido y es lugar de encuentro de lugareños, montañeros, científicos y todo aquel que tenga respeto a la naturaleza.





Gorbeia Parke Naturaleko Interpretazio zentroa
Centro de Interpretación
del Parque Natural de Gorbeia

Gudarien Plaza 1, 48143 Areatza (Bizkaia)
Telf.: 946 739 279

gorbeia.parke.naturala@bizkaia.net




# Gorbeiako Parke Naturala

## Parque Natural de Gorbeia